

**LANKIDETZA HITZARMENA BILBOKO UDALEKO GIZARTE EKINTZA SAILAREN ETA UDALERRIKO ADINEKOEN ELKARTEEN ARTEAN, DIRU LAGUNTZA IZENDUNAK ARAUTZEKO ETA, HARTARA, OINARRIZKO EKIPAMENDUAREN ETA TEKNOLOGIA BERRIEN DOTAZIOA FINANTZATZEKO ETA ENTITATEEN GESTIOA HOBETUKO DUTE OBRAK EGITEKO 2019an.**

**CONVENIO TIPO DE COLABORACIÓN ENTRE EL ÁREA DE ACCIÓN SOCIAL DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO Y ASOCIACIONES DE MAYORES DEL MUNICIPIO PARA ARTICULAR LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES NOMINATIVAS CON LAS QUE FINANCIAR LA DOTACIÓN DE UN EQUIPAMIENTO BÁSICO Y DE ACCESO A NUEVAS TECNOLOGIAS, ASÍ COMO LA REALIZACIÓN DE OBRAS, QUE MEJOREN LA GESTIÓN DE LA ENTIDADES 2019.**

#### **PARTE HARTZAILEAK**

#### **REUNIDOS**

Alde batetik, Iñigo POMBO ORTIZ DE ARTIÑANO jauna, Bilboko Udalaren Gizarte Ekintza Saileko zinegotzi ordezkaria.

De una parte Don IÑIGO POMBO ORTIZ DE ARTIÑANO, Concejel Delegado del Área de Acción Social del Excmo. Ayuntamiento de Bilbao.

Eta bestetik, eranskinean agertzen diren udalerriko adinekoen elkarteak.

Y de otra, las Asociaciones de Mayores de Municipio que figuran en el ANEXO adjunto.

Alde biek ahalmen osoa onartu diote elkarri hitzarmenak sinatzeko eta betebeharrak hartzeko, eta horretarako,

Los comparecientes se reconocen plena capacidad para obligarse con el carácter que intervienen y a tal fin,

#### **ADIERAZITAKOA**

#### **EXPONEN**

**BAT.-** Udalaren Osoko Bilkuran onetsitako Gizarte Ekintzako aurrekontuak 99.000,00 €-ko laguntza izenduna ezarri du bertan adierazitako udalerriko adinekoen elkarteentzat.

**PRIMERO.-** Que en el Presupuesto del Área de Acción Social aprobado por el Excmo. Ayuntamiento Pleno, está prevista una subvención nominativa por un importe total de 99.000,00 € a favor de las Asociaciones de Personas Mayores que se relacionan en el mismo.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003ko Legearen babespean, diru-laguntza horren zuzeneko emakidaren hitzarmen arautzaile hau egin da; halaber, aipatutako proiektua garatzeko parte hartzen duten alde bien konpromisoak jasotzen ditu hitzarmenak, lege horren 22.2.a) eta 28 artikuluekin bat etorritz.

Al amparo de la Ley de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre se ha confeccionado el presente Convenio tipo regulador de la concesión directa de dicha subvención así como de los compromisos de las partes que intervienen para el desarrollo del Proyecto mencionado, todo ello en cumplimiento de los artículos 22.2 apartado a) y 28 de la citada Ley.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan, administrazioaren arteko banaketa arautzen duen

El Área de Acción Social, dentro del marco legal que regula las atribuciones municipales en el ámbito de las personas mayores, Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales, Decreto 185/2015 de 06 de octubre, de Cartera de

uztailaren 30eko 155/2001 Drekretuan, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak gizarte-zerbitzuak eta programak banatzeko 2002ko urriaren 1ean sinatutako akordioan eta horiekin bat datozen xedapenetan ezarritakoarekin bat, Gizarte Ekintza Sailak, ERANSKINEKO elkarteek gestionatutako aisialdi aktiboaren programaren balorazio positiboa egin du eta bere iritziz, interes publikoa eta soziala dauka.

**BI.- ERANSKINEKO.-** Adinekoen Elkarteak Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Sailarekin lankidetzan ari diren elkarteak dira eta, euren helburuen barruan, lan komunitarioaren arloko urteetako esperientzia dute, batez ere euren jarduera-esparruko adinekoentzako jarduera ludikoak egiten. Euren jarduerak bete ahal izateko oinarrizko ekipamenduen eta teknologia berriak erabiltzeko dotazioa behar dute (mahaia, aulkiak, ordenagailua, inprimagailua, fotokopiagailua, bideo-proiektagailua, telefonoaren instalazioa, ADSL...).

Bilboko Udalak, Gizarte Ekintza sailaren bidez, urteak daramatza urteko diru-laguntzak ematen adinekoen elkarteek, adierazitako helburuetarako. Elkarteak diru-laguntzak eskatzeko dagozkion deialdi publikoek proiektuaren garapena eta egonkortasuna oztopatzen dutela ikusi da.

**HIRU.-** Alde batetik, adinekoen dinamizazio-programetan eta euren esperientzian Eranskineko adinekoen elkarteek eta Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Sailarekin izan duten lankidetzaren baloratuta eta, bestetik, adinekoen aisialdi aktiboa sustatzeko eta bizimoduaren kalitatea hobetzeko Udalak programa berriak eta berritzaileak bultzatzeko duen premia baloratuta, Gizarte Ekintza Sailak egokitzat jotzen du elkarte horiek gestionatutako zenbait programa garatzen eta gauzatzen jarraitzea. Horretarako, egoki

Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, Decreto 155/2001 de 30 de julio, regulador de la distribución de los mismos entre las Administraciones, Acuerdo sobre reparto de programas sociales suscrito por la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao de fecha 1 de octubre de 2002 y disposiciones legales concordantes, ha valorado positivamente el interés público y social que se persigue mediante el desarrollo del Programa de ocio activo gestionado por las Asociaciones que figuran en el ANEXO.

**SEGUNDO.-** Las Asociaciones de Mayores que figuran en el ANEXO son entidades colaboradoras del Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao y en el marco de sus objetivos, vienen desarrollando desde hace años una experiencia de trabajo comunitario, centrada fundamentalmente en actividades lúdicas para las personas mayores de su ámbito territorial de actuación. Para el logro de sus actividades se precisa de una dotación de equipamiento básico y de acceso a nuevas tecnología (mesas, sillas, ordenador, impresora, fotocopidora, cañón proyector, instalación de teléfono, de ADSL...).

El Ayuntamiento de Bilbao a través del Área de Acción Social viene desde hace años concediendo subvenciones anuales a las Asociaciones de Mayores para los fines indicados, constatándose que las convocatorias públicas de subvenciones a las que debe de acogerse la Asociación para llevar a cabo sus objetivos dificultan la continuidad y estabilidad de sus actividades.

**TERCERO.-** Valorados, por un lado, la labor de colaboración de las Asociaciones de Mayores que figuran en Anexo adjunto, con el Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao en diversos programas y su experiencia en la dinamización de las personas mayores y, por otro, el interés municipal y la necesidad de promover proyectos novedosos y renovadores que potencien el ocio activo y que mejoren la calidad de vida de las personas mayores, el Área de Acción Social considera oportuno seguir

deritzo diru-laguntza' zuzenean ematea (aipatutako legeetan babestuta), daukaten zertarako soziala kontuan hartuta.

**LAU.-** "Bat egiteko erabakia" izeneko dokumentua sinatuta formalizatuko da hitzarmen hau.

Parte hartzaileek honako hau erabaki dute:

### **ERABAKITAKOA**

Bilboko Elkarateak bere zentroan jarriko dituela barrutian bizi diren adinekoen aisialdirako ekipamendua eta beharrezkoak diren baliabide teknikoak, Baldintza hauekin:

### **BALDINTZAK**

#### **BAT.- ZERTARAKOA**

Hitzarmen hau diru-laguntza ematea da obrak egin eta ekipamendua eskuratzeko. Ekipamendu hauek eskuratzeko da:

- Bulegokoa (idazmakina, altzariak...), **ez da sartzen berez bulegokoa den materiala.** Papera, koadernoak, boligrafoak...
- Informatikoak/elektronikoak
- Jarduera fisikoak egitekoak (bizikletak, zintak...)
- Aisialdikoak eta eskulanak egitekoak (koltxonetak, hamakak...)
- 
- Terapeutikoak/osasuna/edertasuna
- Ostalaritzakoak edo/eta etxeakoak (kafe-makina, hozkailua...)

Obrei dagokienez, bakarrik finantzatuko dira udal titulartasunekoak diren lokaletan egiten direnak. Kasu honetan, elkarateak aldeztu aurretik jakinarazi

apoyando el desarrollo y ejecución de diversos programas gestionados por las mismas estimando conveniente recurrir al procedimiento de concesión directa de subvenciones (al amparo de la legislación mencionada) en consideración a la finalidad social que se persigue.

**CUARTO.-** La formalización del presente Convenio se realizará a través de la firma del documento denominado "Acuerdo de adhesión".

En consecuencia las partes intervinientes

### **ACUERDAN**

Que la Asociación de Bilbao instalará en su centro el equipamiento y recursos técnicos necesarios para favorecer el ocio de las personas mayores residentes en su distrito, de acuerdo a las siguientes:

### **CLÁUSULAS**

#### **PRIMERA - OBJETO**

El presente Convenio tiene por objeto subvencionar la realización de obras y adquisición de equipamiento. Respecto a la adquisición de equipamientos, se incluyen los siguientes:

- De oficina (máquinas de escribir, mobiliario...), **no incluye material de oficina propiamente dicho:** papel, cuadernos, bolígrafos...
- Informáticos/electrónico
- Para la realización de actividades físicas (bicicletas, cintas, ...)
- Para la realización de actividades de ocio y manualidades (colchonetas, hamacas...)
- Terapéuticos/salud/belleza
- De hostelería y/o domésticos (cafetera, frigorífico...)

En lo que respecta a la realización de obras, solamente se financiarán aquellas que se realicen en locales que no sean de titularidad

beharko dio Gizarte Ekintza Sailari obrak egiteko asmoa duela, hartara, Gizarte Ekintza Sailak egokitasunaren balorazioa egin eta obra egitearekin ados dagoela adierazi dezan.

## **BI.- AURREKONTUA**

Hitzarmen honen helburu den programa finantzatzeko, eranskinean adierazita dagoen kopuruko diru-laguntza aurreikusi da eta Gizarte Ekintza sailaren gasturako 2019ko aurrekontuaren kargura joango da. Partida honen kargura finantzatuko da: 2019/21000/23130/78199, kodea PEP 2019/00137.

## **HIRU.- ORDAINTEZKO MODUA**

Diru-laguntza ordainketa bakarrean emango da, hitzarmen hau onartu eta sinatu ondoren. Diru-laguntza ez da ordainduko elkarrekin jasotzaileak lehenagoko udal diru-laguntzaren bat justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu ez badu, horretarako jarri zitaion epean. Aurreko diru-laguntzaren bat itzultzeko eskatuta elkarrekin itzuli ez balu, ez zaio diru-laguntza hau ordainduko.

## **LAU.- ELKARTEAREN KONPROMISOAK**

### 1) Batzordearen osaera

Elkarrekin bere estatutuetan eta hitzarmen honetako baldintzetan araututa gauzatu eta bideratuko ditu bere jarduerak.

Estatutuek bestelakorik arautzen ez badute, Elkarrekin Zuzendaritza Batzordeak gutxienez 6 kide izango ditu.

municipal. En este supuesto, la entidad previamente deberá comunicar al Área de Acción Social su intención de ejecutar la obra, a fin de que el Área de Acción Social valore su idoneidad y manifieste su conformidad a la realización de la misma.

## **SEGUNDA.- PRESUPUESTO**

Para la financiación del programa objeto del presente Convenio, se contempla una subvención por el importe que figura en el anexo con cargo al presupuesto de gastos del Área de Acción Social (2019). La financiación se realizará con cargo a la partida 2019/21000/23130/78199, código PEP 2019/00137.

## **TERCERA.- FORMA DE PAGO**

El abono de la subvención se efectuará en un solo pago, una vez aprobado y suscrito el presente convenio. El abono de la subvención no se efectuará si la asociación beneficiaria no hubiera presentado la documentación justificativa de alguna subvención municipal anterior dentro del plazo de justificación estipulado para ello. Tampoco se procederá al abono si la Asociación beneficiaria no hubiese reintegrado alguna subvención anterior cuando así se le hubiese requerido.

## **CUARTA.- COMPROMISOS DE LA ASOCIACIÓN**

### 1) Composición de la Junta

La Asociación someterá su funcionamiento y desarrollo de actividades a la regulación contenida en los Estatutos de la misma, así como a las cláusulas del presente Convenio. En el supuesto de que los Estatutos no regulen otra cosa, la Junta Directiva de la Asociación tendrá como mínimo 6 miembros.

2) Justifikazioa

**2020ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 15era** bitartean elkarteak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu Gizarte Ekintza Sailean:

- Eskuratutako ekipamenduaren gaineko memoria (I. ERANSKINEAN dago memoriaren eredua).
- Ekipamenduen kontzeptuan egindako gastuen ziurtagirien zerrenda sailkatua. (II. ERANSKINEKO eredua).
- Era berean, emandako diru-laguntzarekin egindako ordainketen jatorrizko fakturak edo ziurtagiriak.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta hitzarmenean ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratzeko-kostua ezingo da izan inola ere merkatu-balioa baino handiagoa.

Gastuak justifikatzea ezinbestekoa da udal administrazioak diru-laguntzak emateko hurrengoan.

Aipatutako dokumentuak baldintza hauen eranskineko ereduaren arabera aurkeztuko dira.

3) Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin

Diru-laguntza hau bateragarria da beste administrazio edo erakunde pribatu nahiz publiko batzuetako diru-laguntzekin. Hala ere, diruz lagundutako jardueretarako bestelako diru-laguntzak, laguntzak, diru-

2) Justificación

En el plazo comprendido desde el **1 de enero hasta el 15 de mayo de 2020**, la Asociación deberá presentar en el Área de Acción Social los siguientes documentos:

- Memoria comprensiva del equipamiento adquirido (Se adjunta modelo de la Memoria como ANEXO I).
- Relación clasificada de los justificantes acreditativos de los gastos en concepto de equipamiento (Se adjunta modelo como ANEXO II).
- Asimismo, se adjuntarán justificantes o facturas originales de los pagos realizados con la subvención concedida.

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en el convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

La justificación de los gastos es requisito imprescindible para obtener futuras subvenciones por parte de la administración municipal.

Los documentos mencionados se presentarán según modelos incorporados en los Anexos de estos Pliegos.

3) Compatibilidad con otras subvenciones

Esta subvención es compatible con otras subvenciones que pudieran percibirse de otras administraciones, o entes públicos o privados. No obstante, se deberá comunicar al Área de Acción Social la obtención de

sarrera edo baliabideak eskuratu dituela jakinarazi behar dio Gizarte Ekintza Sailari. Edozelan ere, diru-laguntzen eta bestelako jatorri batzuen bidez lortutako finantzazioa ezin izango da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan. Horrela balitz, dagokion itzulketa egin beharko litzateke.

otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida por subvenciones y otras fuentes, no podrá resultar superior al coste del programa subvencionado, en cuyo caso daría lugar al reintegro correspondiente.

4) Justifikatzeko epea

Emandako diru-laguntzak justifikatzeko epea **2020ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 15era** bitartekoa izango da.

4) Plazo de justificación

El plazo de justificación de las subvenciones concedidas será **desde el 1 de enero al 15 de mayo de 2020**

**BOST - HITZARMENAREN IRAUPENA**

Hitzarmen honen indarraldia **2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra** bitartekoa izango da. Hala ere, hitzarmena deuseztatuko da alde biek hala erabakitzen dutenean, edo hartutako konpromisoak betetzen ez dituztenean.

**QUINTA.- DURACIÓN DEL CONVENIO**

El presente Convenio se establece con efectos desde el **1 de enero al 31 de diciembre de 2019**, ambos inclusive. No obstante, se considerará rescindido por mutuo acuerdo de las partes o por incumplimiento de los compromisos adquiridos por las mismas.

**SEI.- BERDINTASUN PLANA ETA EUSKARAREN ERABILERA**

Elkarteak bere gestioan eta garatzen dituen programetan kontuan hartuko du genero-ikuspegia, berdintasun-planak aplikatzeko; batez ere, zuzendaritza-batzordeak antolatzerakoan.

**SEXTA.- PLAN DE IGUALDAD Y USO DEL EUSKERA**

La Asociación tendrá en cuenta tanto en su gestión como en los programas que desarrolle la perspectiva de género cara a la aplicación de los Planes de Igualdad, especialmente en la configuración de sus Juntas Directivas.

Bereziki, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legean, eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legean ezarritakoa betez, beharrezko neurriak hartuko dira erabiltzaileak hizkuntza (gaztelania edo euskara) aukeratzeko duten eskubideaz baliatu daitezten.

En particular, y en cumplimiento de lo establecido en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, y de la Ley 6/2003, de 22 de diciembre de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, se adoptarán los medios necesarios para garantizar el ejercicio del derecho de las personas usuarias a la elección lingüística del castellano o el euskera.

#### **ZAZPI.- PUBLIZITATEA**

Udalaren diru-laguntzekin gauzatutako programen publizitatean Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak erabili behar dira eta Udalak eman duen diru-laguntza aipatu beharko da.

#### **ZORTZI.- ERANTZUKIZUN ZIBILA**

Elkarteak erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu behar du nahitaez, hitzarmen hau betetzeko garatzen diren jarduerak pertsonengan edo gauzetan sor ditzaketen kalteen arriskutik babesteko.

#### **BEDERATZI.- ZERGA BETEBEHARRAK ETA DIRU LAGUNTZAK JASOTZEKO DEBEKUAN SARTUTA EZ EGOTEAREN ERANTZUKIZUNEZKO AITORPENA**

Elkarte sinatzaileak egiaztatu egin beharko du ez duela zorrik Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin, honako hauek erantsita: Zerga-betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, hasitako urtean administrazio eskudunak egina; halaber, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dituela edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen ziurtagiria ere, hasitako urtean Diruzaintza Nagusiak egina. Era berean, egiaztatu beharko du ordainduta dituela Bilboko Udalarekiko zerga-betebeharrak. Puntu hori ziurtatzeko, baimena ematen dio Gizarte Ekintza Sailari informazio hori egiaztatu dezan.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 24.2 artikuluan adierazitako debeku batean ere sartuta ez egotearen erantzukizunezko aitorpena aurkeztu beharko du elkarateak.

#### **SÉPTIMA.- PUBLICIDAD**

En la publicidad de los programas llevados a cabo con la subvención municipal se utilizarán las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, haciéndose asimismo mención de la financiación otorgada por el Ayuntamiento.

#### **OCTAVA.- RESPONSABILIDAD CIVIL**

La Asociación asume la obligación de contratar un seguro de responsabilidad civil para la cobertura de los riesgos por daños en personas o cosas derivadas de la actividad desarrollada en el cumplimiento del presente Convenio.

#### **NOVENA.- OBLIGACIONES TRIBUTARIAS Y DECLARACIÓN RESPONSABLE DE NO INCURRIR EN PROHIBICIÓN PARA LA PERCEPCIÓN DE SUBVENCIONES**

La Asociación firmante deberá acreditar hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con Hacienda Foral y con la Seguridad Social adjuntando: certificación acreditativa de estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales, expedida en el año en curso por la administración tributaria competente, y certificación acreditativa de estar al corriente del pago de las obligaciones de Seguridad Social, o de no tener la entidad trabajadores a su cargo, expedida en el año en curso por la Tesorería General. Así mismo, se acreditará estar al corriente del pago de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Bilbao y para acreditar este extremo, se autoriza al Área de Acción Social a contrastar dicha información.

Así mismo, la entidad deberá presentar declaración responsable de no incurrir en ninguna de las prohibiciones previstas en el art. 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el artículo 24.2 de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres, para obtener la condición de beneficiario de la subvención.

### **HAMAR.- IKUSKARITZA ETA KOORDINAZIOA**

Hitzarmen honen alderdi juridiko administratiboaren jarraipena egiteko eta betearazteko ardura Gai Orokorretako Sekzioko buruarena da.

Programaren koordinazio teknikoa Elkarteen eta Adinekoen buruak egingo du. Horretarako, egokitzat jotzen diren jarraipen-bilerak egingo dira.

### **HAMAIIKA.- DATUEN BABES**

Bat etorriaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28. artikularekin (Datu pertsonalen tratamenduan eta datu horien zirkulazio librea pertsona fisikoen eskubideak babesteari buruzkoa da, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetu zuen, Datuen babesari buruzko erregelamendu orokorra onetsi zuena) eta 3/2018 Lege Organikoaren 33. artikularekin (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa), BILBOKO UDALA, hitzarmen peko entitatearen datu pertsonalak tratatzean, honako jarraibide hauei jarraitu beharko zaie:

- I. Hitzarmen peko entitateari gaitasuna ematen zaio (bera da tratamenduaren arduraduna) BILBOKO UDALAREN kontura trata ditzan (bera da tratamenduaren erantzulea) hitzartutako programa/zerbitzua emateko beharrezkoak diren datu pertsonalak, dokumentu honen 3.1 Eranskinaren arabera.
- II. Hitzarmena egikaritzeko, BILBOKO UDALAK, hitzarmen peko entitatearen esku jartzen du, entitate hori denez tratamenduaren arduraduna, dokumentu honen 3.1 Eranskinean deskribatzen den informazioa.

### **DÉCIMA.- SUPERVISIÓN Y COORDINACIÓN**

La responsabilidad del seguimiento y cumplimiento del presente convenio en los aspectos jurídico-administrativos, corresponde a la Jefatura de Sección de Atenciones Generales.

La coordinación técnica del programa corresponde a la Jefatura de Negociado de Asociaciones y Mayores, para ello mantendrá las reuniones de seguimiento que se estimen oportunas.

### **UNDÉCIMA.- PROTECCIÓN DE DATOS**

De acuerdo con el artículo 28 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y al artículo 33 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, el tratamiento de datos personales de la entidad convenida por cuenta del AYUNTAMIENTO DE BILBAO, seguirá las siguientes directrices:

- I. Se habilita a la entidad convenida, como encargado del tratamiento, para tratar por cuenta del AYUNTAMIENTO DE BILBAO, responsable del tratamiento, los datos de carácter personal necesarios para prestar el programa/servicio convenido, de acuerdo al Anexo 3.1 del presente documento.
- II. Para la ejecución del Convenio, el AYUNTAMIENTO DE BILBAO, pone a disposición de la entidad convenida, encargado del tratamiento, la información que se describe en el Anexo 3.1 del presente documento.

- III. Klausula honetan adierazitakoak indarrean iraungo du harreman estekatzailak irauten duen artean, edo legezko betebeharrak betetzeko behar adina urtean. Hori ez da eragozpen izango egoki irizten zaionean tratamenduaren arduradunaren zerbitzurako datuak eta informazioa berrikusi eta egiaztatzeko.

Behin harreman hori amaitutakoan, eta betiere ez bada ezartzen harreman berririk, hitzarmen peko entitateak eman egin beharko ditu datu pertsonalak hurrengo apartatuan aurreikusitakoaren arabera, eta, betiere, ezingo du beretzat gorde inolako kopiarik, salbu eta BILBOKO UDALAK berariaz baimena ematen badio.

- IV. Hitzarmen peko entitateak eta, hala balegokio, bere kargu dauzkan langileek, betebeharrak hauek izango dituzte:
- Hitzarmen honen gai diren datu pertsonalak –edo hitzarmen horretan sartzeko biltzen dituenak– hitzarmenaren xederako bakarri erabiliko ditu. Ezingo ditu erabili datuak bere helburu propioetarako.
  - Datuak tratatu beharko ditu BILBOKO UDALAREN jarraibideen arabera.
  - BILBOKO UDALAREN kontura gauzatutako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat eraman beharko du, idatziz, eta honako hauek jasoko ditu han:
    - Hitzarmen peko entitatearen izena eta harremanetarako datuak, eta zein erantzularen kontura jarduten den, haren izena eta harremanetarako datuak ere bai, eta, hala balegokio, datuen babesaren ordezkariarenak.
    - BILBOKO UDALAREN kontura egindako tratamenduen kategoriak.
    - Aplikatu beharrekoak badira, honako hauen inguruko segurtasun-neurri tekniko eta antolamenduzkoak:

- III. Lo indicado en la presente cláusula se mantendrá vigente mientras perdure la relación vinculante o durante los años necesarios para cumplir con las obligaciones legales. Ello sin perjuicio de las revisiones periódicas que se consideren óptimas para la revisión, verificación de los datos e información a servicio del encargado del tratamiento.

Finalizada la citada relación y siempre que no se establezca una nueva relación, la entidad convenida deberá suprimir los datos personales de acuerdo a lo previsto en el siguiente apartado, y en todo caso, no deberá conservar ninguna copia en su poder salvo autorización expresa del AYUNTAMIENTO DE BILBAO.

- IV. La entidad convenida y en su caso, el personal a su cargo, se obliga a:
- Utilizar los datos personales objeto del presente Convenio, o los que recoja para su inclusión, sólo para la finalidad objeto del mismo. En ningún caso podrá utilizar los datos para fines propios.
  - Tratar los datos de acuerdo con las instrucciones del AYUNTAMIENTO DE BILBAO.
  - Llevar, por escrito, un registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas por cuenta del AYUNTAMIENTO DE BILBAO, que contenga:
    - Nombre y los datos de contacto de la entidad convenida y de cada responsable por cuenta del cual actúe la entidad convenida y, en su caso, del delegado de protección de datos.
    - Categorías de tratamientos efectuados por cuenta del AYUNTAMIENTO DE BILBAO.
    - Una descripción de las medidas técnicas y organizativas de seguridad, en caso de que proceda su aplicación, relativas a:

- Datu pertsonalen izengoitzea eta zifratzea.
  - Datuak tratatzeko sistemen eta zerbitzuen konfidentziasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia bermatzeko gaitasuna.
  - Datu pertsonalen eskuragarritasuna eta irisgarritasuna arin berrezartzeko gaitasuna, gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero.
  - Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri tekniko eta antolamenduzkoen eraginkortasuna ohikotasunez egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko gaitasuna.
  - Seudonimización y el cifrado de datos personales.
  - La capacidad de garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento.
  - La capacidad de restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico.
  - El proceso de verificación, evaluación y valoración regulares de la eficacia de las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad del tratamiento.
- d. Erabiltzaileen datuak lagatzea: Oro har, ezingo zaio jakinarazi daturik hirugarren pertsoneri edo antolakundeei, salbu eta hirugarren legimitatuek ezagutu beharreko ordezkartzaren eta defentsa judizialaren arloko informazioa.
- e. Azpikontratazioa: Galarazita dago hitzarmen honen objektua osatzen duten prestazioak azpikontratatzea. Beharrezkoa izanez gero tratamenduren bat azpikontratatzea, alde zuzenetik jakinarazi beharko zaio hori, idatziz, erantzuleari, gutxienez bost (5) lanegun lehenago, adieraziz zeintzuk diren azpikontratatu nahi dituen tratamenduak eta argi eta nahasbiderako aukerarik gabe identifikatuz entitate azpikontratista eta harekin harremanetan jartzeko datuak. Azpikontratazioa zilegi izango da, baldin eta erantzuleak ez badu adierazten, ezarritako epean, aurka dagoela. Azpikontratista ere tratamenduaren arduradun izango da, eta berdin-berdin bete beharko ditu hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak eta BILBOKO UDALAK emandako jarraibideak. Hitzarmen peko entitateari dagokio azpiarduradunarekiko harreman
- d. Cesiones y datos de personas usuarias: Con carácter general, no se podrá comunicar datos a terceras personas u organizaciones, salvo aquella información que en el ámbito de la representación y defensa judicial deban conocer terceros legitimados.
- e. Subcontratación: Se prohíbe subcontratar las prestaciones que formen parte del objeto del presente acuerdo. Si fuera necesario subcontratar algún tratamiento, este hecho se deberá comunicar previamente y por escrito al responsable, con una antelación de cinco (5) días laborables, indicando los tratamientos que se pretende subcontratar e identificando de forma clara e inequívoca la entidad subcontratista y sus datos de contacto. La subcontratación podrá llevarse a cabo si el responsable no manifiesta su oposición en el plazo establecido.
- El subcontratista, que también tendrá la condición de encargado del tratamiento, está obligado igualmente a cumplir las obligaciones establecidas en el presente acuerdo y las instrucciones que dicte el AYUNTAMIENTO DE BILBAO. Corresponde a la entidad convenida

- juridikoa arautzea agiri juridiko baten bidez, zeinak hitzarmen honetan jasota dauden eta aplikatzekoak diren segurtasun-neurriak eta jarraibideak jasoko baititu.
- f. Hitzarmen honen bidez irispidea izan badu datu pertsonalen batzuetara, sekretua gorde beharko du haiei buruz, are hitzarmenaren xedea amaitu ondoren ere.
- g. Bermatu behar du ezen datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak konpromisoa hartuko dutela, espresuki eta idatziz, konfidentziasuna gordetzeko eta dagozkion segurtasun-neurri guztiak betetzeko, BILBOKO UDALAREN esku edukiz betebeharrak hori betetzen dutela egiaztatzen dokumentazioa.
- h. Bermatu behar du datu pertsonalen tratamenduaren arduradunaren langileei beharrezkoa den formazioa ematen zaiela datu pertsonalak babesteari buruz.
- i. BILBOKO UDALARI lagundu behar dio erantzuten datuetara sarbidea izateko, zuzentzeko, ezabatze eta aurka egiteko eskubideak baliatzen direnean; tratamendua mugatu behar denean; erabaki banan-banango automatizatuen objektu ez izaten (profilak lantzea ere barne dela). Hitzarmen peko entitatearen batek eskaeraren bat jasotzen badu eskubideak baliatzeko BILBOKO UDALAREN datu-tratamendua dela-eta, jakinarazi egin beharko dio hari, gehienez ere 48 orduko epean.
- j. BILBOKO UDALARI dagokio interesdunei informaziorako eskubidea baliatzeko modua ematea, halako moldez non hitzarmen peko entitateak uko egingo baitio bere informazio-ereduak emateari, eta BILBOKO UDALARENak baliatu beharko baititu beti, edo, bestela, eskatu egin beharko ditu haiek, baldin eta datuak biltzeko bitarteko edo kanalen batean sartu beharrekoak badira.
- regular la relación jurídica con el subencargado mediante un instrumento jurídico que refleje las mismas condiciones, medidas de seguridad aplicables e instrucciones del presente acuerdo.
- f. Mantener el deber de secreto respecto a los datos personales a los que haya tenido acceso en virtud del presente Convenio, incluso después de que finalice su objeto.
- g. Garantizar que las personas autorizadas para tratar datos personales se comprometan, de forma expresa y por escrito, a respetar la confidencialidad y a cumplir las medidas de seguridad correspondientes, manteniendo a disposición del AYUNTAMIENTO DE BILBAO la documentación acreditativa del cumplimiento de dicha obligación.
- h. Garantizar la formación necesaria en materia de protección de datos personales del personal del encargado de tratamiento autorizado a tratar datos personales.
- i. Asistir al AYUNTAMIENTO DE BILBAO en la respuesta al ejercicio de los derechos de acceso, rectificación, supresión y oposición; limitación del tratamiento; a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas (incluida la elaboración de perfiles). En caso de que la entidad convenida reciba alguna petición de ejercicio de derechos correspondiente a tratamientos de datos del AYUNTAMIENTO DE BILBAO, deberá comunicarla en un plazo máximo de 48 horas al mismo.
- j. Corresponde al AYUNTAMIENTO DE BILBAO facilitar el derecho de información a las personas interesadas, de tal modo que, la entidad convenida se abstendrá de aportar sus propios modelos de información, recurriendo en todo caso a aquellos aportados por EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO o solicitándolos en caso de que se precisen incluir en cualquier medio o canal de recogida de datos.

- k. Datuen segurtasunean etenik gertatuz gero, jakinarazi egin beharko du: Hitzarmen peko entitateak, jakin badu datu pertsonalen segurtasunaren urraketak izan direla, jakinarazi egin beharko dio BILBOKO UDALARI, bidegabeki berandutu gabe, eta gehienez ere 24 orduko epean, posta elektronikoko bat igorri Hitzarmena egikaritzearen eta/edo gainbegiratzearen ardura duenari; orobat jakinarazi beharko dio gorabehera horiek agirietan jasotzeko eta jakinarazteko axolazkoa den informazio guztia (Zehazki, gorabeheraren deskribapena eta zer ondorio ekar ditzakeen, kategoria, zenbat pertsonari eragiten zaion gutxi gorabehera, zer neurri ezarri diren gorabeheren ondorioak leheneratzeko eta gutxitzeko).
- Ez da beharrezkoa izango jakinaraztea, gertagaitza denean segurtasunaren urraketa horrek arriskua ekartzea pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako.
- l. Laguntza eman beharko dio BILBOKO UDALARI datuen babesaren arloko inpaktu-ebaluazioak egiteko, dagokionean.
- m. Laguntza eman beharko dio BILBOKO UDALARI kontroleko agintaritzari alde aurreko kontsultak egiteko, hala dagokionean.
- n. BILBOKO UDALAREN esku jarri beharko du bere betebeharrak bete dituela erakusteko beharrezkoa den informazio guztia, bai eta dagozkion auditoriak edo ikuskapenak egiteko beharrezkoa den informazioa ere.
- o. Segurtasun-neurriak ezarri beharko ditu tratamendu-sistemen eta –zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia bermatzeko, eta, halaber, gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta irisgarritasuna arin leheneratzeko; eta, orobat, aukera emango dutenak ohikotasunez egiaztatzen, ebaluatzen
- k. Notificación de brechas de seguridad de los datos: La entidad convenida notificará al AYUNTAMIENTO DE BILBAO, sin dilación indebida, y en cualquier caso antes del plazo máximo de 24 horas , a través de correo electrónico a la persona responsable de ejecución y/o supervisión del Convenio, las violaciones de la seguridad de los datos personales de las que tenga conocimiento, así como toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia (En concreto, descripción y potenciales consecuencias de la incidencia, categoría y número aproximado de personas afectadas, medidas adoptadas para revertir y mitigar incidencia).
- No será necesaria la notificación cuando sea improbable que dicha violación de la seguridad constituya un riesgo para los derechos y las libertades de las personas físicas.
- l. Dar apoyo al AYUNTAMIENTO DE BILBAO en la realización de las evaluaciones de impacto relativas a la protección de datos, cuando proceda.
- m. Dar apoyo al AYUNTAMIENTO DE BILBAO en la realización de las consultas previas a la autoridad de control, cuando proceda.
- n. Poner a disposición del AYUNTAMIENTO DE BILBAO toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento de sus obligaciones, así como para la realización de las auditorías o las inspecciones que se realicen.
- o. Implantar las medidas de seguridad que garanticen la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento, medidas de seguridad que permitan restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico y que permitan verificar, evaluar y valorar, de forma regular, la

eta baloratzen tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri tekniko eta antolamenduzkoen eraginkortasuna. Hala ere, beste neurri batzuk ere ezarri ahal izango dira, estandar onetsien arabera, edo alderdiek beste neurri batzuk adostu ahal izango dituzte, horretarako jarraibideak emanaz; gainera, beren-beregi emandako ziurtagiri eta egiaztagirien bidez ere frogatu ahal izango dira neurriok, Bereziki, Hitzarmenaren 3.2 Eranskinean zehatzen diren neurriak ezarriko dira, gutxienez.

- p. Datuen zertarakoa: hitzarmen peko entitateak BILBOKO UDALARI itzuli beharko dizkio datu pertsonalak, eta, hala badagokio, haiek jasotzen dituzten euskarriak, behin programa egikarituta eta, betiere, hitzarmena berritzen ez bada. Datuak itzultzean, arduradunak erabili dituen informatika-ekipoetan dauden datuak guztiz ezabatu beharko dira.

eficacia de las medidas técnicas y organizativas implantadas para garantizar la seguridad del tratamiento. Sin perjuicio de adoptar otras que, de acuerdo a los estándares aceptados, se puedan implementar o acordar entre las partes mediante instrucciones y que además, se puedan demostrar mediante certificados y acreditaciones al efecto. En particular, las medidas de seguridad a implantar serán, al menos, las especificadas en el Anexo 3.2 del Convenio.

- p. Destino de los datos: La entidad convenida se obliga a devolver al AYUNTAMIENTO DE BILBAO los datos personales y, en su caso, los soportes donde consten, una vez ejecutado el programa y siempre que no se renueve el convenio. La devolución debe comportar el borrado total de los datos existentes en los equipos informáticos utilizados por el encargado.

#### **HAMABI.- HITZARMENA DEUSEZTATZEA**

Hitzarmen hau deuseztatu ahal izango da, alde biek halaxe erabakita edo hartutako konpromisoak betetzen ez badituzte.

#### **HAMAHIRU.- ALDAKETA**

Diruz lagundutako programan funtsezko aldaketak egin ahal izateko, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Sailari eskatu behar zaio idatziz eta honek egokia den ala ez baloratu beharko du eta berariaz baimendu.

Funtsezko aldaketak egiteko eskariak arrazoiturik egongo dira eta aurrekontuan izango duten eragina zehaztu beharko da. Gobernu Batzordeak Gizarte Ekintza Saileko ordezkariari eskumena ematen dio aldaketa horiek baimentzeko.

#### **DUODÉCIMA.- RESCISIÓN DEL CONVENIO**

El presente Convenio podrá rescindirse por mutuo acuerdo de las partes o por incumplimiento de los compromisos adquiridos por las mismas.

#### **DÉCIMOTERCERA.- MODIFICACIÓN**

Cualquier modificación sustancial del programa subvencionado habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao quien deberá valorar su procedencia y autorizarla expresamente.

Las solicitudes de modificación sustancial han de estar motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias. La Junta de Gobierno delega en el Concejal Delegado del Área de Acción Social la autorización de estas modificaciones.

Funtsezko aldaketatzat jotzen dira honako hauek:

- Helburu orokorretan eta/edo zehatzetan egindakoak.
- Onartutako aurrekontuko partidetan % 20tik gorako bariozioak (partiden arteko aurrekontu-bariozioek ez dute eraginik izango zeharkako kostuetan), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez dutenean.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea dakarrenean, Gobernu Batzordeak onartu behar ditu.

Diru-laguntzaren izaera eta helburuak funtsean aldatzen ez dituzten gainerako aldaketak justifikazioaren unean onartu ahal izango dira, betiere aldaketok onartzean beste batzuen eskubideetan kalterik egiten ez denean.

#### **HAMALAU.- ITZULKETA**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluan eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko Araudiaren III. tituluan ezarritakoa aplikatuko dira.

#### **HAMABOST.- ARAUBIDE JURIDIKOA**

Hitzarmen hau administrazio-hitzarmena denez gero, bere klausula propioez gain, administrazio-zuzenbideko arauak arautzen dute.

#### **HAMASEI.- BAIMENA GIZARTE EKINTZA SAILARI**

2019ko, edota 2020ko diru-laguntzen tramitazioa prestatzen eta aurreratzen joateko:

A tal efecto, se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- Cambios en los objetivos generales y/o específicos.
- Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen la minoración del presupuesto total del programa.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

#### **DÉCIMO CUARTA.- REINTEGRO**

Será de aplicación lo dispuesto en el título II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones y el título III del Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

#### **DÉCIMOQUINTA.- REGIMEN JURÍDICO**

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se rige en consecuencia, además de por sus propias cláusulas por las normas de derecho que sean de aplicación.

#### **DÉCIMOSEXTA.- AUTORIZACIÓN AL ÁREA DE ACCIÓN SOCIAL**

Con el fin de ir preparando y avanzando la tramitación de subvenciones en el ejercicio 2019 y en su caso en el 2020:

Elkarteak baimena ematen dio Gizarte Ekintza Sailari informazioa eska diezaion Bilboko Udaleko Ekonomia eta Ogasun Sailari ea elkarteak Bilboko Udalarekin zergen arloko zorrik duen betearazte-bidean.

Hala berean, baimena ematen dio gizarte Ekintza Sailari honakoak eskatzeko bere izenean: Foru Ogasunari: zerga-betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari: Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dituela, edo bere kargupean langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

Ados daudela agertzeko, alde biek hitzarmen honen ala bi sinatu dituzte, Bilbon, 2019ko .....(e)(a)n.

La Asociación autoriza al Área de Acción Social para recabar del Área de Economía y Hacienda del Ayuntamiento de Bilbao, información acerca de si la Asociación posee deudas de carácter tributario en vía ejecutiva en este Ayuntamiento.

Así mismo, autoriza al Área de Acción Social a solicitar en su nombre: Certificación acreditativa de estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales, a la Hacienda Foral y certificación acreditativa de estar al corriente del pago de las obligaciones de Seguridad Social, o de no tener la entidad trabajadores a su cargo, a la Tesorería General de la Seguridad Social.

En prueba de conformidad, se firma el presente Convenio, por duplicado, en Bilbao, a XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX de 2019.

GIZARTE EKINTZA SAILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

ELKARTEKO PRESIDENTEA

EL CONCEJAL DELEGADO DEL ÁREA DE ACCIÓN SOCIAL

EL/LA PRESIDENTE/A DE LA ASOCIACIÓN

Fdo.: Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano

Fdo.:XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX